Lan-eskaintzen erregistroa 2020ko abenduan

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2020ko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 586 izan da, azaroan baino 421 gutxiago eta joan den urteko abenduan baino 54 gutxiago. Egunean bataz bestez 31 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 17 eskaintza gutxiago egunean. Hilabete honetako datuak ezin dira ulertu Covid-19ak sortutako pandemia kontuan izan gabe.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2020ko abenduan 98 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 206 Gipuzkoan eta 282 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 48,1 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 35,2 Gipuzkoan eta % 16,7 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 38,7 murriztu dira eskaintzak (62 eskaintza gutxiago), Gipuzkoan murrizketa %29,2koa izan da (85 eskaintza gutxiago) eta, azkenik, Bizkaian izan da bilakaera txarrena (274 eskaintza gutxiago, -% 49,3).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 11 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 10,1eko murrizketa; Gipuzkoan 55 eskaintza gutxiago erregistratzen dira, % 21,1eko murrizketa, eta azkenik, Bizkaian 12 eskaintza gehiago izan dira, % 4,4ko hazkundea.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. %23a, zientzia teknikarien lanbide-profilerako erregistratu dira (125 eskaintza); eta, ia 5 eskaintzako 1, ez kualifikatuetan (116 eskaintza). Laguntzako teknikarien, zerbitzuen eta industria profilen lan eskaintzak, ere, pisu nabarmena dute; 91, 84 eta 72 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak zuzendarienak eta lehen sektorekoenak izan dira, 5 eta 4 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, ia profil guztietako eskaintzak murriztu dira, zuzendarienak izan ezik; hauen kasuan, eskaintza 1 gehiago erregistratu da abenduan. Balore absolutuetan, gehien murriztu den profila zientzia teknikariena izan da (138 eskaintza gutxiago, % 52,5eko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektorekoena izan da, % 84ko beherakada (4 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, bai balore absolutuetan, bai balore erlatiboetan, zerbitzuen profileko eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (65 eskaintza gutxiago, % 43,6ko murrizketa). Aldiz, ez kualifikatuen eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (21 eskaintza gehiago, % 22,1eko hazkundea).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 8,4k kontratu mugagabea eskaini dute; % 92,1ek, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,5ek, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 49 izan dira, 25 gutxiago aurreko hilabetearekin alderatuz, %22,1eko murrizketa. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 394 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 534 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa % 42,5ekoa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2020ko abenduan 3 izan dira, aurreko hilean baino 2 gutxiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 54 gutxiago izan dira (% 52,4ko murrizketa), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 0,4 murriztu dira; 2 eskaintza gutxiago, eta, merkataritzako kontratuak, aldiz, 2 gehiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2020ko abenduan erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurdenek (443 eskaintza, %75,6) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 11,8k (69 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 1,7ko pisua dute (10 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua %0,5ekoa da (3 eskaintza).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak murriztu dira 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan ezik; hauek 0 tik 3ra igo dira hil honetan. Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, 6 hilabete baino gutxiagoko eskaintzak izan dira (316 eskaintza gutxiago, % 41,6ko murrizketa); aldiz, balio erlatiboetan, 3 eta 5 urte tarteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (% 52,4ko murrizketa, 11 eskaintza gutxiago.

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira beherakada haundiena jasan dutenak (45 eskaintza gutxiago, %39,5eko beherakada). Aldi berean, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eta 3-5 urte artekoa eskatzen dutenak ere murriztu egin dira (23 eta eskaintza 1 gutxiago, hurrenez hurren). Bestalde hazi direnak, 1-3 urte tarteko (12 eskaintza gehiago, % 24,5) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak izan dira (0tik 3ra).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 8 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean baino 1 gehiago.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 12,6k zehazten du datu hori (586 eskaintzetatik 74). 74 eskaintza horietatik, 55 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 19k, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 194 gutxiago izan dira azaroarekin alderatuz, hau da, % 77,9 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 7 gutxiago izan dira; beherakada erlatiboa % 26,9koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 31 gutxiago izan dira (% 36ko murrizketa), eta lanaldi partzialeko kasuan, 8 eskaintzatakoa izan da beherakada (% 26,9ko murrizketa).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 12 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 4 eskaintza gehiago, eta 2019ko abenduan baino 8 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 78,9k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 586 eskaintzetatik 116k soilik zehaztu dute.



116 eskaintza horietatik, 49k LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 42,2); eta beste 40k unibertsitateko ikasketak (%34,5). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 23 eskaintzekin (% 19,8). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (4 eskaintza, % 3,4).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza guztiak murriztu dira. Gehien murriztu direnak, balore absolutuetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (52 eskaintza gutxiago, % 56ko murrizketa). Aldiz, balio erlatiboetan, batxilergoko prestakuntza maila eskatzen dutenak izan dira gehien murriztu direnak (% 81,8ko murrizketa, 18 eskaintza gutxiago).

2019ko abenduarekin alderatuz, gehien hazi diren eskaintzak oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (16 eskaintza gehiago, % 228,6ko hazkundea). LHko prestakuntza maila eskatzen duten eskaintzak izan dira murriztu diren bakarrak (3 gutxiago, % 5,8ko beherakada).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena Administrazio Publiko izan da; honen pisua eskaintza guztien % 21,7koa izan da (127 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk, manufaktura-industriak, osasuna eta merkataritza izan dira, eskaintzen % 11,9, % 11,8 eta % 10,2ko pisuarekin (70, 69 eta 60 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz ia eskaintza guztiak murriztu dira. Gehien murritu direnak, bai balore absolutuetan zein erlatiboetan, Administrazio Publikokoak izan dira (280 eskaintza gutxiago, % 68,8ko murrizketa). Aldiz, hazkunde handiena izan dutenak, ur horniketakoak izan dira (13 eskaintza gehiago, % 130eko hazkundea).

Urte arteko saldoari erreparatuz, bilakaera okerrena pairatu duten eskaintzak ostalaritzakoak izan dira (% 74,5eko murrizketa, 35 eskaintza gutxiago). Gehien hazi diren eskaintzak, Administrazio Publikokoak izan dira; 87 eskaintza gehiago erregistratu dira eta hazkundea % 217,5ekoa izan da).